



Euskal naziotasuna xede, 'Bai Euskal Herriari' ekimena aurkeztu dute

VILLABONA ▶ EHNA erabiltzeko gida, tramitatzeko aukerak eta bilera irekiak egiteko asmoa azaldu dute

ATXIKIMENDUAK ▶ Atzo, Gurea aretoan eginiko ekitaldiaren ostean, sinadura bilketa burutu zuten ▶ 7



Bai Euskal Herriari herri ekimenaren aurkezpen ekitaldian atxikimendua azaldu zutenak, atzo Gurean. n.u.



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

'Sua', lagunartean eginiko film luzearen grabaketa

IBARRA ▶ Eneko Aritza Filmagintza eta Kultur elkarteko kideek Euskal Herriko hainbat txokotan dihardute filmaren grabaketa lanetan. *Eneko Aritza* film laburraren ostean, lehenengo film luzea dute *Sua*. Azken grabaketa Seguran burutu zuten, eta hilaren 11n Maulen izango dute hurrengoa. I. OTEGI / ARGAZKI PRESS ▶ 4-5

LARRAUL ▶

Herritarren lehentasunak zehaztuta, batzarrean

Tokiko Agenda 21 prozesuaren baitan ▶ 6

www.sagarrondotik.com | argazki-erak: berria | hitza

SAGARRONDOTIK

06

THE LOQUILLO
CHAMBA
OTUNK'ILLO
SORKUN

MORDO
FELTAS CORTOS
LIVING COLOUR
BERRI TXARRAK
BETAGARRI

HERNANI

amparanoia

+ sorkun

tolosa

750

martxoak 11, larunbata, 22:00
11 de marzo, sábado, 22:00

Zezen plaza

tolosa
750
www.tolosa750.com

ORGANIZATZAILEAK
MAGDOLENA
www.tolosa750.com

UZTURRETIK ▶ BITTOR MADINA

Buzoia



Bizitzak buruan eta bihotzean gordeta uzten dizkiguten zenbait ideia, iritzi, asmo eta bizipenak gehienetan ahoz eskaintzen dizkiegu ezagunei, lagunei eta pertsona kuttunei. Baina burutik ordenagailuko orrira eta orritik beste askoren begietara eskaintza eta eramate horrek beldurtzen gaitu hasieran. Horrelaxe gertatu zait Hrtatik dei goxo batek zenbait igandeko zutabe hau betetzeko gonbita jaso dudanean.

Egunkarietako zutabe fijoetan, hausnarketa xehe batera eramaten gaituzten kontakizuntxoak sartzearen aldekoa naiz. Besteekin hitz egiterakoan, asmatutakoaren edo gertatutakoaren berri

ematean, tertulia giroa ere baretu eta belarriak erne jartzen ditugu.

«Hasierak zailak omen dira», diote. Baina baita ere: «Hasteak berak lanaren erdia borobiltzen du». Bigarren esaera honek aurrenekoari laztasuna kenduko dio eta ea beste erdia leunki irristatuz agertzen zaidan. Zu zeu irakurle zara orain. Ni neu, idazten jardun arren, zurekin irakurle nahi dut izan. Beraz, bide berdinean ariko gara.

Agure batek ba omen zeukan balio handiko eta ondo gordetako arkatxoa. Urre eta zilar xaflez forratuta zuen. Zabalteko eta ixteko giltza berezia zuen. Altxorrez eta diruz beteta zeukanaren zurrumurrua ezaguna zen. Hilean behin ateratzen zen etxetik «erretiroko soldata» jasotzea. Horrelako egun batean, lapur bat sartu zitzaion etxebarruan. Kostata, eskailerapeko txokotxo ezkutuan bilatu zuen arkatxoa lapurrak eta bera-

rekin eraman zuen. Ezusteko galanta jaso zuen lapurrak bere etxean arkatxoa ireki ahal izan zuenean. Kartak besterik ez. Agureak bizitzan zehar jaso zituen maitasun-kartak zeuden barruan.

Zer egin paper multzo horiekin? Zakarrontzira bota? Erre? Lapurrak, denok bezala, bere bihotz erdialde onak bultzatuta, astero karta bat itzultzen joatea erabaki zuen. Banan-banan denak itzuluz arte.

Postariak, astelehenero eguerdi alde- ra betetzen zuen bere lana. Agurea ordu horretan leiho ondoan zain egoten zen. Postaria ikusi orduko, buzoiko giltza behatzen mugituz bere bihotz taupadak dantzan jartzen zituen. Bere adinerako, aspaldiko eta betiko maitasun hitzak sendagai zoragarriak zitzaizkion.

Kanpoan edo etxe atarian dugun buzoiak badu bere xarma. Opari lekutzat

dut txoko hori. Beharbada ez didazu inestuko: postaria gure herriko etxeetatik bi egunetik behin pasatzen dela jakin arren, egunero giltzatxoa hartu eta buzoiko atetxoa zabaltzen dut. Batzuetan bi aldiz ere bai. Barrutik zer edo zer jasotzeko aukera dudan egunean, batzuetan hutsik ikusten dut. Beste batzuetan propaganda, aldizkari eta bankuko zenbakien ihardun inpersonalak mugitzen zaizkit atea zabaltzerakoan. Tartean, noizbehinka, paketetxoren bat. Eta, halako batean, erdi gordeta, sobre bateko kontrazalean eskuz idatzitako izen-abizenak eta helbidea ikusten dut. Barrukoa altxortzat daukat. Norbaitek bere berri jakinarazten dit. Ez da gutxi!

Gaur inauguratzen dudan buzoia hau giltzarik gabe jasoko duzu zenbait igandetan. Beste idazlekideena horrelaxe neureganatu izan dut, kontatutako agurrearen antzera. Beharbada, batzuetan, «uff!, propaganda» eta beste antzerako paper hutsa bezala jasoko duzu. Baina, behintzat, hori ez da nire helburua. Agurrearen irrika hori izango dut gogoan.

ASTEKO IRUDIA ▶



IÑIGO TERRADILLOS

‘... Inauteriak beti, alaitzen gaitu guztiz...’

Leire Montes ▶ Suziriak eztanda egin orduko hasi ziren dantzan eta saltoka Plaza Berrian Ostegun Gizenan elkartu ziren ehunka eta ehunka tolosarrak. Beren festa kuttunen hasiera iragartzen baitzuen horrek: Inauteriak. Zaldunita goizean Dianaren doinuak jai-kiarazi zituen ohetatik (argazkian), festen hiru egun handiak behar bezala agurtzeko. Urtero legez, aurten ere jendetza bildu da Tolosara herria itxuraldatu egiten den sei egunetan. Irudimena, kolorea, txarangen musika, txantxa, umore ona... 2006ko Inauteriek hori guztia eta gehiago izan dute. Atsedean hartzeko premia nabaritu dute gehienek ondoren, baina ziur asko eta asko hasi direla dagoeneko hurrengo urteko mozerro eta bestelakoetan pentsatzen. I. TERRADILLOS



iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Suhiltzaileak, Ertzaintza, polizia. 2006ean lanpostu berriak. Informazioa: 943 313782.

Administrari laguntzaileak.

Hurrengo sarrerak: Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil,

Mendaro, Anoeta.

Hilean 1.500 euro. Doako informazioa. 943 313782.

Garbitzaileak. Lanpostu finkoak:

Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa: 943 313782.

Gidariak. Udaletan eta Foru

Aldundian laster lanpostuak. Kontratu mugagabeak.

943 313782.

Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak. Postu libreak Eusko Jaurilaritzan. Asteburuetan libre.

943 313782.

Peoiak, langileak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak.

Lanpostu libreak udaletan.

943 313782.

Aireportuak. Bete behar dituzte:

harreragileak, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak eta mantentze-lanerako langileak. Informazioa: 943 313782. **Harreragileak.** Telefonistak, hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. 943 313782.

NEKAZARITZAREN EGOERA TOLOSALDEAN ▶ 2006an Tolomendi landa eremuko garapen agentziak 19 proiektu bultzatuko ditu, eta 381.800 euroko laguntza emango du. Osasuntsu al dago nekazaritza Tolosaldean? Sektorearen egoeraz, geroaz eta erronkez mintzatu dira EHNEko eta ENBAko ordezkariak tarte honetan.

AITOR USANDIZAGA IZAGIRRE (EHNE-KO TOLOSALDEA BAILARAKO ORDEZKARIA) ▶

Tolosaldeko nekazaritza

Azken bi hamarkadetan aldaketa izugarriak gertatu dira nekazaritza eta Tolosaldean ere ederki asindu gaitu aldaketa haize horrek. Bertatik bizi ginen baserri txiki, produkzio anitzeko eta ugariak izatetik, produkzio espezializatu, handiago eta gaur gero eta gutxiago garen baserri mota honetara iritsi gara. Hauxe da Europatik bultzatu den nekazaritza honen ondorioa Euskal Herria bezalako herri txiki eta menditsu batentzat: gainbehera. Gure politikariek ez dute bertara egokitutako nekazaritza politika bat egiten jakin eta bitartean gure produktuen prezioek bere horretan edo orain hogeitun urte baino gutxiagoko (kasu batzuetan) neurritan jarraitzen dute. Aldiz, pentsa ezazue bizimodua zenbat igo den.

Espezializazio eta prezio baxuen ondorioak garbiak dira gure eskualdean ere. Esnean, haragian, artzantzan eta barazkigintzan ere sekulako inbertsioak egin behar izan ditu baserriak aurrea egiteko eta, hala ere, ez dago gure jarraipena erabat ziurtatua. Kasu askotan, gainera, uzten ari da baserriak, baita inbertsioak eginak baditu ere; seme-alabek ez dute jarraitu nahi hain estimazio gutxiak langintza honetan, horren ondorioz hogeitun urtetan nekazarion %80ak utzi duelarik bailara honetan ak-

tibitate. Horregatik, baserri bizi garenon batez besteko adina berrogeita hamar urtetik gorakoa da eta, egia esan, oso gazte gutxi hasi gara baserrian, beste bailara batzuekin alderatuta hain gutxi ez bada ere.

Beharbada, esnegintza izango da behar bada handienetakoa jasan duen saila. Lehen, ia baserri guztietan ateratzen zen esnea; orain, aldiz, herri gutxi batzuetan eta nahiko kontzentratuta gaude: Asteasu, Zizurkil, Orendain... Gaur egun, oso zaila da esnegintzan hutsetik hastea, ekologikoan, berriz, inbertsio txikiagoekin posible den arren, merkatua egiteko eta lantzeko laguntzik ez dagoenez oztipoak besterik ez dituzte bere lanetarako.

Haragi sailean beste horrenbeste. Erabat bertatik bizi nahi duenak, ganadu kopuru handiarekin jokatu beharra dauka, horrek dakartzan arazo guztiekin. Bestalde, lurralde menditsua izanik, produkzio kostuek beren neurria dute, Europako beste herrialde askorekin konparatuz gero handiagoa noski eta kalitate handiko produktua izanagatik, orain hogeitun urteko preziora ez da iristen.

Tolosaldean oso gutxi dira haragi produktiotik bakarrik bizi direnak. Hala ere, baserriak kanpo lan egiten duten askok dituzte haragi behiak beraien lurrak garbitzeko eta kalitatezko haragi bat ekoizteko.

Artzantzan ere ez daude gauzak bate-re erraz, hontaz bizi nahi duena diru asko inbertitu beharrean aurkitzen da. Horretaz gain, ez zaie batera erraztasunik ematen mendi larreen kudeaketa egoki bat egiteko, Aralar kasuko.

Barazkigintza izan da beti herritarren gana gehien hurbildu den sektorea. Emakume baserriarrek egindako lana izan da eta gaur egun ere hala da, bereziki. Salmenta zuzena, horixe da sail hau borobilduko lukeen hitza: kalitatezkoa, konfiantzazkoa, garaian garaiko produktu freskoa eskaintzen delako. Zoritxarrez, jendearen erosteko ohiturak aldatu egin dira eta azokak indarra galtzen ari dira salmenta leku desegokiak jarri zaizkielako baserriarrei. Azoka berezien

GAINBEHERA

«Hogeitun urtetan nekazarion %80ak utzi du aktibitatea eskualde honetan»

kasuan, berriz, askotan herriaren propaganda soilerako erabiltzen dira. Uste dugu alor honetan badagoela zer hobetua, bailara honetako baserriarri aukera bat emateko bideak jartzen badira.

Ez nituzke ahaztu nahi oilasko, txerri, untxi eta bestelako hazkuntza motak. Bailara honetan presentzia txikia duten arren, batzuentzat balio izan duelako bizimodua ateratzeko.

Nekazaritzaren egoeran beste faktore batzuk ere eragin nabarmena izan dute. Lurra da gure kezka nagusienetakoa bat; izan ere, lurrik gabeko nekazaritza ulerrezina da. Azken urteotan lur galera handia jasaten ari gara: esaterako, lurrik onenak (erriberak) industriarako bide-ruta dira, oso nabarmen gainera gure bailaran. Beste mordoak bat etxebizitzetarako tapatu da, eta zer esanik ez errepede, trenbide eta beste zenbait makroproiektuekin. Ez iruditu arren eragin handia du gudan, gure bizibide delako lurra.

Arazoa, ordea, ez da nekazariona bakarrik. Arazoa gizarte osoarena da, gu ere gizarte honen parte garelako. Beraz, denoi dagokigu sektore honi bultzadaxo bat ematea, badugulako bizimodua ateratzeaz gain beste eginkizun garrantzitsu bat ere, ingurumena zaintzearena, alegia. Lan hori ondo ordaindua izatea besterik ez dugu nahi, beste edozein herritarren bizimaila berean gure ogibidea hau delako. Lurra behar dugulako eta gizarteak behar gaituelako!

MIKEL ARTEAGA ARRUTI (GIPUZKOAKO ENBA-KO LEHENDAKARIA ETA ASTEASUKO ESNETAKO ABELTZAINA) ▶

Tolosaldea: lurralde eta pertsonen oreka sustatu beharrean

Tolosaldeko nekazal sektorearen egoerari buruz mintzatzerakoan, berehala konturatuko gara barnealdeko eskualde berezia dugula, bailararen behealdean dauden herriak eta inguruko herri txikien arteko oreka mantentzen baita. Agian ez herri txikiotan bizi garenok nahi genuen bezain perfektua, baina bere akats eta tira-bira guztiekin, ozen esan dezakegu Tolosaldeko Villabona *hiriek* beste gainontzeko herrixkekin oreka txukuna mantentzen dutela, bai onerako bai txarrerako.

Ez da batera samurra ordenatzea eta gaiak erabakitzea hainbeste herri txiki dituen eskualdean, baina herri txikiok zeresan handia dugu eskualdearen etorkizunerako eta ea denon artean gai garen elkarlanean jarduteko.

Nekazal sektoreari dagokionean oso kontuan izan beharko dugu eskualdearen orientazio nagusia abeltzaintza izanik (esnea, okela, ardia...), barazki-landare azpisektoreak ere bere garrantzia baduela. Azpisektore bakoitzaren egoeraz ez naiz mintzatuko, hain zuzen ere, Tolosaldeko azpisektore bakoitzaren

egoera beste edozein eskualdetakoaren ahantzekoa edo berdina baita; beraz, eskualdeak dituen arrisku edota aukeretan zentratu nahi nuke.

Lurraldearen ordenazioa izango dugu datoen urteotako erronkarik nagusienetarikoa bat eta, hain zuzen ere, gure eskualdeko lurraldea antolatuko duen Lurralde Plangintza jendaurrean orain ari da tramitatzen. Bertan ikusiko dugu nekazal lurren babesa norainokoa den eta gure udalek, Agenda 21ean esandako irajarriz, landa ingurunea babesteko duten edota etxebizitzaren urrezko jainkoaren aurrean makurtuko diren.

Lurralde antolamenduz hitz egitean ezin ahaztu nekazal lurra babestea, mendi larreak sustatzea eta negutegi-tako nekazaritzaren etorkizuna (baraz-

kiak, babarruna, piperra, lora, biberak...) bermatzeko agroaldeak aurrikustea, are gehiago, herri barnealdean geratu diren ustiapenak berrikatzeko beharra sortuko denean.

Eskualdeko herrietako azokak mantendu, indartu eta berriak sortu beharrean daude, beren azpiegiturak bultzatu eta kanpora begira Tolosa-Tolosaldeko *marka*-ren erakargarritasuna bultzatu beharrean gaude. Eta, gureari begira, Tolosan eguneroko salgunea ere pentsatu beharko da, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harremana sendotzeko. Bestalde, ezin ahaztu, gure tamaina eta ahalmenak ahaztu gabe, komertzializatze bide berriak (delikatosen dendak, surtidoreak, supermerkatuak, Internet...) eta horretarako beharrezko diren elkarteak, enpresa edo kooperatibak sortu.

Abere azpisektoreei dagokionean, ekoizpenaren eraldaketa jorratu beharrean gaude elkartaren zati handiagoga gure patrikan gera dadin; adibidez, behi esnearen inguruan proiektu kooperatibo edo amankomunak sortuz. Eta, azke-

UDALAK

«Udalek ere nekazaritza sektorean buru-belarri inplikatu beharko lukete»

LARRAUL ▶ AGENDA 21

Herritarren lehentasunak zehaztuta

Lerro estrategikoen baitan hainbat gai eztabaidatu zituzten larrauldarrek azkeneko herri batzarrean

ERREDAKZIOA

Tokiko Agenda 21 prozesuaren baitan, herri batzarra burutu duite Larraulen. Bertan, herritarrek beren lehentasunak zehaztu dituzte. Ondoren, prozesuaren zazpi lerro estrategiketan batzarrean bildutakoek nabarmendutako gaiak.

ETXEBIZITZA, OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA

Etxebizitza politika.

▶ Herritarrek etorkizunera begira nolako herria eduki nahi luketen hausnartzeko/eztabaidatzeko bilera irekiak antolatu.

▶ Etxebizitza sustapen berria aprobetxatuz, haurren parkearen kokalekua erdigunera aldatu, eta haur parkea orain da goen kokalekuan aparkalekua egin, eta honela plazaren zati bat behintzat oinezkoentzat jarri.

Oinarrizko zerbitzuak.

▶ Herrian eskaini nahi diren oinarrizko zerbitzuak zeintzuk diren definitu.

▶ Herriko tabernaren etorki-

zuna eta funtzionamenduak nolakoak behar luketen hausnartu eta eztabaidatu.

Hezkuntza zerbitzuak.

▶ Haurrentzat lehen mailako ikasketak herrian ezarri.

▶ Haurrentzat, eskolaz kanpoko aktibitateak antolatzen jarraitu, herritarren beharretara egokitzu, orain arte egiten den moduan.

Osasun eta Gizarte Zerbitzuak.

▶ Sendagilea astean behin edo bi astetan behin herrian izateko aukera tanteatu.

▶ Osasun arloko beste zerbitzuak (podologoak, masajista...) eskaini.

Aisialdia, kultura eta kirol zerbitzuak.

▶ Balioaitzeko Zentroa kudeatzeko aukerak zeintzuk diren ikusita, herritarrek eta Udalak erabaki dezatela zer egin nahi eta ahal den.

▶ Museoaren etorkizuna eztabaidatu herritarren eta Udalaren artean.

Euskararen erabilera.

▶ Euskaltegiarekin hitz egin-da, urtean behin, udazkenean,



Azkeneko herri batzarrearen une bat. HITZA

euskarako hastapeneko ikastaroak emateko deialdia egin, eta nahikoa jende izena ematen badu, ikastaroa antolatu dadila bultzatu.

▶ Herritar euskaldunek herritar erdaldunak euskalduntzeko mintza praktikak egin, adibidez, Ostatuan.

▶ Herriko erdaldunei euskalduntzen laguntzeko baliabideak ipini.

HERRITARREN MUGIKORTASUN BEHARRA

▶ Garraio publikoaren zerbitzuari buruzko informazioa zabaltu.

▶ Bono-taxi zerbitzuaren inguruko informazio gehiago eskaini herritarrei.

UR/ENERGIA/HONDAKIN ZERBITZUAK

Ur hornikuntza eta ur kontsumoa.

▶ Herri bilera bat egin, Ur Kontsultazioan sartu ala ez eztabaidatzeko.

Hiri hondakinak.

▶ Zabor organikoaren bilketa mankomunatu ezartzeko epeak eta baldintzak azaldu herritarrei.

▶ Zaborren bilketako tasak igo behar badira, herritarrei azaldu eta komunikatu.

▶ Traste handiak, arropa, etxeko hondakin arriskutsuak eta olioak jasotzeko egunak zeintzuk diren komunikatu herritarrei.

EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA

▶ Jarduera ekonomikorik gabeko herri bat nahi den, edo jarduera ekonomikoak sustatu

nahi badira, zeintzuk bultzatu nahi diren eztabaidatu eta adostu.

▶ Udalak eskaintzen dituen zerbitzu guztien inguruko informazioa eman herritarrei, gai horien inguruko enpresa txikien bat sortuko balitz, aurrera egiteko aukera egon zitekeela azaltzeko.

BASERRI BIZITZA Nekazal lurrak.

▶ Arau subsidiarioen berrikuspenean lurzoru urbanizagarrri berria kalifikatzerakoan iraunkortasun irizpideak kontutan izan, alternatiba desberdinak eta goi mailako planeamenduen xedapenak gogoan hartuz.

Bizi baldintzak.

▶ Baserrian bertan etxebizitza egiteko aukera zabaltu, gazteak bertan gera daitezten.

JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA

▶ Herritarrek ez zuten lehentasunik finkatu.

UDAL KUDEAKETA ETA HERRI KOHESIOA

Herritarren eta Udalaren arteko komunikazioa.

▶ Herri Batzarrek egin behar diren edo ez adostea, eta egitekotan, zertarako, zein maiztasunarekin... eztabaidatzea.

Parte-hartzea eta herri giroa. Auzolana berreskuratzeko herritarrek prest ote dauden jakin.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Furgoneta. Volkswagen Multivan-a salgai. Interesatuak deitu 670 06 55 33 zenbakira.

Furgoneta. Citroen Berlingo. 2003koa. 30.000 kilometro. Oso egoera onean. Deitu 635 73 63 75 zenbakira.

Etxebizitza. Andoingo Olagain Auzoan pisua salgai. 82 m²-koa. 3 logela, sukalde, egongela, bainugela eta trasteleku bikiri. Eguzkitsua eta ikuspegi ederrekin. 943 59 01 58.

Kotxea. Seat Toledo. Diesel, 110 zaldi. 2002koa. Prezio interesgarria. Deitu 628 54 91 45 zenbakira.

LANA

Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da taberna 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

GIPUZKOAKO EUSKAL KANTU TXAPELKETA 2006

(Bakarleri, bikote eta taldekako sailetan)

Hiru ekitalditan gauzatuko da:

1. kanporaketa: **URRETXUKO** Labeaga aretoan, martxoaren 18an, 18:00etan.
2. kanporaketa: **OIARTZUNGO** Elorsoro kiroldegian, martxoaren 25ean, 18:00etan.
3. Gipuzkoako finala: **AZKOITIKO** Baztartzo antzokian, apirilaren 1ean, 18:00etan.

IZENA EMATEKO azken eguna, martxoaren 13a

anima zaitetz!



Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea
20140 - ANDOAIN
Tel-fax: 943-593302
posta@kantuzale.net

Neguan, ur asko...

Termaeuropa Bainuetxea	105€	Hortako bainuetxeak, 17.471 gta
Costa del Sol	47,50€	Hortako bainuetxeak, 7.360 gta
Kantabria	48€	Hortako bainuetxeak, 7.367 gta
Aste Santurako eskaintza berezia		
Viva 7% deskontua		
Galizian zehar ibilbidea	181€	Hortako bainuetxeak, 36.116 gta
Paris	259€	Hortako bainuetxeak, 43.094 gta
Konkistatzaileen Ibilbidea	276€	Hortako bainuetxeak, 45.923 gta
Florentzia-Venezia	389€	Hortako bainuetxeak, 54.724 gta

EROSKI bidaiak

merezi duzu

www.viajerosroski.es

VILLABONA ▶ GIZARTEA

‘Bai Euskal Herriari’ herri ekimenaren aurkezpena egin dute

Hainbat egitasmo planteatu zituzten atzoko agerraldian: EHNA erabiltzeko gida, tramitatzeko aukera eta bilerak



Julen Yarza, Aitor Gonzalez, Eneko Gorostidi eta Mikel Luloaga, atzo Gurea aretoan. NEREA URBIZU

NEREA URBIZU

Bai Euskal Herriari taldea sortu berri dute Villabonan, eta atzo egin zuten aurkezpen ekitaldia. Talde bezala aurkezteaz gain, Gurea zinemara hurbildu zirenen atxikimendua jaso zuten sinaduren bitartez.

Bertan, Mikel Luloagak *Bai Euskal Herriari* herri ekimeneko bozeramaileak Euskal Herriko Naziotasun Aitormenaren (EHNA) nondik norakoak azaldu zituen; bere sorreratik egunerarte egin diren pausoez, izan duen harreraz, duen esanahiaz, erronkez, erabilek duen garrantziaz... jardun zuten. Burutzen ari diren egitasmoen artean, EHNA erabili daitekeen merkatal gune eta

Nortasun agiriak haratago

2000. urtean aurkeztu zuten *Bai Euskal Herriari* herri ekimena. Sinadura erraldoi batekin eman zitzaion hasiera, eta hain zuzen ere, 125.000 lagun izan ziren sinatu zutenak. Bilketak hau oinarri batzuekin bideratu zen: «euskaldunok urteetan zehar beti agertu behar izan dugu zer ez garen, beti saiatu izan gara gure izatea jasoko zuten tresnak agerian jartzen, eta horien artean EHNA dugu garrantzitsuenetakoa».

2001ean, Euskal Herriaren lehen instituzio nazionala, hau

da, Udalbiltza sortua zela ikusita eta «ordurarte hor zeuden behar eta nahiei erantzuteko aukera zegoela kontuan hartuta», modu ofizial batez egitea erabaki zuten, eta horrela sortu zuten EHNA Udalbiltzak.

Nortasun agiri bat baino gehiago izan behar zuela argi zuten bere sorreratik; «naziotasun aitormenaren formatu moduan egin nahi izan zen, EHNA ez baita gure nortasunaren berri ematen duen paper zati hutsal bat, aitormena eta adierazpena ere izan nahi du»

zerbitzuen zerrenda kaleratzea izan da. Azkoitia, Azpeitia eta Zestoa aldean egin dute hori, eta «lan handia» izan bada ere, «era horretara EHNA daukaten herritarrek erraztasun gehiago izango dute zein lekutan erabil dezaketen jakiterako orduan», azaldu zuten. Villabonan ere antzerako asmoa dutela, baina epe luzearako utziko dutela, «taldea sortu berria baita», gehitu zuten.

Epe motzeko egitasmoak

Lehenik eta behin, EHNA tramitatzeko aukera izango da Villabonako Kultur Etxean hila-bete bakoitzeko bigarren larunbatero. Beraz, hilaren 11n egin ahalko da lehen aldiz, 11.00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Halaber, orain arte egin duten moduan, hilabetean bitan elkartu nahi dute, baina aurreantzean bilkura irekiak izatea da duten asmoa: lehenengo bilera hilaren 17an, Kultur Etxean egingo dute 19:30ean.

Ondoren, «babes adierazpena eta aitormena» irakurri zuten prentsaurrekoan zeudenek, ondoren sinadurak biltzeko. Honela zioen adierazpenak eta aitormenak, laburbilduz: «Nik, euskal herritarra naizen honek zera aldarrikatzen dut: Euskal Herria, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia eta Beherea, Zuberoa eta Lapurdiko lurraldeez osatua dagoela. Euskara dela hango hizkuntza, begirunea behar duena. Euskal Herria bere buruaren jabe bere gain libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea duen nazioa dela. Ni euskal herritarra naiz eta euskal naziotasunaren jabe naiz».

Ekitaldia amaitzeko, sinadurak jaso zituzten, eta besteak beste, Mikel Pagadizabal aktore eta gidolariak, Ainhoa Arozena kazetariak, Amaia Agirre bertsolariak, Eneko Gorostidi preso politikoa ohiak, Maixabel Arrieta alkate ohiak, Jon Iñaki Ormazabal artisauak, eta Josune Arretxe *Euskal Herriak Bere Eskolako* kideak adierazi zuten atxikimendua.

AZOKA ▶

Nabarmen jeitsi dira salmentak, ajea dela eta

Berrikuntzak izan dira baratzeko landareetan eta zuhaitzetan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia izan zen oso, joan diren asteburukoekin konparatuz. Goiz osoan zehar izandako haizeak eta Inauterietako ajeak zerikusi handia izan zuten horretan, eta nahiz eta goizeko azken orduetan giroa berotu, salmentak orokorrean ez ziren oso handiak izan. Berrikuntzaren bat edo beste izan zen. Zuhaitzen zerrendari *Thuya orientalis* espeziea gehitu zen eta lehenengo *pago larrosa* ere ikusi genuen. *Thuya* 10 eurotan saldu zen, eta *pagoa*, 5 eurotan.

Berdura plazan, berriz, eskaintza zabala izan zen. Apaingarriko landareen artean, ziklamena, primula, edo eta *larrosa* nagusitu ziren. Baratzeko landareen artean, bestalde, berrikuntzarik ere izan zen ikusgai. Tomatea, porrua, edota marrubia bezalako udaberri-udako espezieak ere izan ziren atzoko azokan.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Ziklamena	5,00	-
Pensamientoa	1,00	-
Porrua	2,40	-
Bertako produktuak		
Intxaurra	2,50	4,00
Kalabaza	1,50	3,00
Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko martxoaren 5a, igandea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA	goizez arratsaldez	beroena 09 hotzena 04	BIHARKO EGURALDIA	goizez arratsaldez	ELURRA ARALARREN	Guardetxe: gaur: bai / bihar: bai	Pagomari: gaur: bai / bihar: bai	HITZA-KO BEZEREN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)
------------------	-----------------------	-------------------------------------	-------------------	-----------------------	------------------	-----------------------------------	----------------------------------	---

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Belauntza. Etzi, 19:30ean, Kultur Etxean *Hindu: un sueño de libertad* proiektatuko da.

Tolosa. Eresoinka abesbatzan aritutako kantarietzako bazkaria antolatu dute hilaren 12an, igandea. Informazio gehiago eta izen-ematea 625 70 36 84 edo 677 43 89 49 telefono zenbakietan. 37 euro sartu behar dira Kutxako 2101 0117 12 0125329102 kontu korrontean.

Txarama. Kultur eta osasun gunearain inaugurazioa. Gaur, 12:30ean, herriko dantzarien saioa; ondoren, luncha.

ERAKUSKETA

Leitza. Manuel Lasarte: *bizitza eta sorkuntza*. Gaurtik hilaren 26ra bitartean, udaletxeko batzar aretoan.
Tolosa. Dorleta Ortiz de Elgearen pintura erakusketa Aranburu jauregian, apirilaren 1era bitarte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

Bihar
Tolosa. Ebebeste, J.M. Gemnikako Arbola, 3. 943 65 10 40.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.

IRRATIA

Txolarre irrati
 (107.5, 101.2 FM)
 10:30-13:00. *Hitzak hegan* (errepikapena)

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariari adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



Urtzi eta Zigor bertsozaleak aritu ziren ikastarotxoaren ematen. N. URBIZU



Gazteek adi-adi entzun zuten bertsozaleek emandako eskola. N. URBIZU

Bertsolaritza jolasbide

VILLABONA ▶ Bertsoak eta jakiak ahotan, algarak ere izan dira Gaztetxean; bertsolaritza ikastarotxo jaso ostean, hainbat taldek parte hartu dute

NEREA URBIZU

Herri olimpiadei hasiera eman zaie Villabonako Gaztetxean. 13 talde inguruk hartu zuten parte atzoko arratsaldean. Bertsoak izan ziren protagonista: sormenari leku egin zioten gazteek, letra asmatu egin behar baitzuten bertsoetarako.

Horretarako aurretikako prestaketa jaso zuten: Urtzi eta Zigor izeneko villabonatarrek aritu ziren bertsoen azaleko



Entzun bitartean, batzuk eztaerriak barran berotu zituzten. N. URBIZU

azalpenak ematen: arreta handia lortu zuten.

Barre egiteko aukera ere izan zuten Gaztetxean bildutakoek, jakiak ahoan zituzten bitartean ere kantatu behar izan baitzuten.

Oreka TX taldearen emanaldia bertan behera geratu zen. Dena dela, mokadutxoak prestatu zuten Gaztetxean, gauarekin lotzeko eta festa ederrarekin jarraitzeko. Bi aste barru, berriz, beste proba batzuk prestatuko dituzte.

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZaren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN
 Ugaitz Aizpitarte Tobar (Alegia).
 Zure arreba Maddi eta zure gurasoen partetik, zorianak zure lehen urtebetetzean. Muxu bat!



URTE ASKOAN
 Ugaitz Aizpitarte Tobar (Alegia).
 Maddi eta Aratzen partetik zorianak zure lehen urtebetetzean. Muxu bat!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZaren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZaren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza **lagunen txokoa**

▶ HITZA harpidedunen artean...

HONEKIN Ileapaindegian zerbitzu osoa eta ilearen tratamendurako bi produktu zozketatuko ditugu.

ESTILISTAK
honekin

Tolosaldeko eta Leitzaideko HITZaren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero